

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Trafiko-istripuetan hildako pertsona kopuruak behera egin du urteko lehen zazpi hiletan, 22tik 14ra

Uztailean bost lagun hil dira Nafarroako errepideetan

Lunes, 01 de agosto de 2011

Urtearen lehen zazpi hiletan hamalau lagun hil dira Barne saileko Zuzendaritza Nagusiak emandako datuen arabera. Iaz baino zortzi hildako gutxiago izan dira (% 36,3 gutxiago), 22 lagun hil zirelako trafiko-istripuetan. Zehazki, hamar lagun hil dira Nafarroako Gobernuaren errepide-sarean eta lau hiri-sarean eta beste bide batzuetan.

Uztailean bost lagun hil dira Nafarroako hiri eta hiri arteko bideetan. Haietatik, hiru, autoek harrapatutako oinezkoak izan dira. Hildakoak izan ziren lehen istripua uztailearen 1ean gertatu zen, Iruñean. Horren ondorioz, 60 urteko Murietako emakume bat hil egin zen. Uztailearen 5ean eta 7an beste bi oinezko hil ziren autoek harrapatuta Iruñeko Eskualdean. Haietatik, batek, 87 urte zituen eta oinezkoen pasabide batean harrapatu zuen auto batek; besteak, 30 urte zituen eta N-121 errepidean harrapatu zuen auto batek.

Halaber, bi gidari hil dira. Lehena, 77 urteko gizonezkoa, uztailearen 12an Bearinen parean (Deierrri), lur orotako ibilgailu batek eta turismo batek talka eginda. Bigarrena, 64 urteko Belgikako gizonezkoa, gidatzen zuen turismoaren kontrola galduta Ultzama ibaira erori zelako hilaren 30ean Iruñea-Behobia errepidean (N-121-A), Sorauren inguruan.

Datu hauen berri eman ditu gaur lehen lehendakariorde eta Lehendakartzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuko kontseilari Roberto Jiménezek. Hau adierazi du: "Nafarroako Gobernuan gogor lan egingo dugu trafiko-istripu kopurua ahalik eta gehien txikiagotzen, hildako ugari dagoelako". "Leku beltzak murrizteko, normalean istripuak gertatzen diren eremuak prebentzioz seinaleztatzeko, trafikoa hobeto antolatzeko lan egingo dugu". Halaber, gogoratu du gidariok kontuan hartu behar dugula errepideak duen arriskua. Horregatik, "jarrera aldatzea" eskatu du gidatzean.

Bestalde, hildako kopuruari dagokionez, hauxe adierazi du: "errepidean pertsonak hiltzen badira ezin dezakegu esan onak direla, hala ere, azken urteetan nabarmen murriztu direla esan dezakegu".

44 gidari salatu dituzte gehiegizko abiaduragatik

Oporren irteera eta itzulera operazioa dela-eta, ostiral arratsaldetik (uztailak 29) igandera bitartean (uztailak 31) Foruzaingoak kontrol eta zaintza zerbitzu berezia egin du ohiko lekuetako irteera eta sarrera bideetan, eta gutxi gorabehera 10.400 ibilgailu kontrolatu ditu hiru

abiadura-kontroletan. Horrela, 44 gidari salatu dituzte gehiegizko abiaduragatik; 37ri salaketa jakinarazi zaie eta alkoholemia probak egin zaizkie. Batek ere ez du positibo eman.

Jarduera horretan Iruñeko eta Tuterako komisarietako Trafiko eta Bide Segurtasuneko 108 patruilak parte hartu dute, hainbat lan-txandatan (goizez, arratsaldez eta gauez).

Poliziaren jarduera honen xedea trafiko-istripua murriztea eta ibilgailuak errazago igarotzea izan da, udako oporrak direla-eta auto gehiago ibiltzen baitira egunotan.